

<http://ikas.eus/spip.php?article1663>



Larrialdietan - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak



Larrialdietan Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz geriztua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

Haurra: Ai, ai, ai! Min dut. Noiz etorriko da medikua?

Ama (edo aita): Badakizu, larrialdietan pazientzia behar da. Batzuetan berehala hartzen dute baina gehienetan igurikatu behar da. Gainera gaur, larunbat arratsa izanki, segur sendagileek lana ukanen dutela.

Haurra: Uste duzu zerbait hautsia dudala?

Ama (edo aita): Gaixoa, ez naiz mediku. Laster jakinen dugu.

Erizaina: Gau on. Zer gertatzen zaizue?

Ama: Bizikletan ibilki zelarik, tontor batengatik erori da eta orain sorbalda min du.

Erizaina: Sar zaitezte gela horretan; medikua ahal bezain laster etorriko zaizue. Gaur lanpetuak gara. Ez dakit haize hego honek duenez jendea harrotzen baina jadanik hiru zauritu sartu zaizkigu. To, hara medikua.

Medikua: Zer du gazte honek?

Erizaina: Bizikletatik erori da eta sorbalda minbera du.

Medikua: Besoa luzatzen ahal duzu?

Haurra: Bai, bai, sorbalda ez baldin badut mugitzen.

Medikua: Uste dut klabikula hautsia duzula. Erradiografia eginen dizugu. Baduzuia beste minik? Burua kaskatu duzua erortzean?

Haurra: Ez, zernahi gisaz kaskoa soinean nuen.

Medikua: Biba zu. Kaskoa beti soinean ezarri behar duzu buruaren gerizatzeko.

Ama: Hautsia baldin badu, zer gertatuko da?

Medikua: Ikusiko dugu haustura zer heinetan den. Hain segur, zenbait denboraz beso-zurkaitz batekin egonen zara. Gero, operatua izanen zara eta burdinazko plakatxo batzuk ezarriko dizkizute hezurren ontsa finkatzeko.

Haurra: Min eginen du?

Erizaina: Ez. Operazio denboran lokartua izanen zara. Anestesia orokorra eginen dizute.

Medikua: Ez baduzu beste galderarik, erradiografia-gelara eramanen zaitu erizainak. Xantza duzu ezkerreko besoa duzula ezindua. Gauza anitz zuhaurek egiten ahalko duzu.}

Ama: Zuk errazu! Eskolako lanak bederen egiten ahalko ditu!

Haurra: Bai, baina ez naiz playan aritzen ahalko!

Erizaina: Goazen orain.

Jokalariak: Haurra, haren ama, erizaina, medikua.

Autorea: Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea: Ikas

Argitaratze data: 2010/12/21

Maila: 3. ziklotik goiti